



2023

Jarduera memoria

01 Ingurunearekiko konpromisoa

Agurra	3
Fundazioaren helburuak	4
Jardun-esparruak eta -eredua	5

02 Proiektuak eta jarduerak

Gizarterantz	6
Mundukide	8
Baserritik mahaira	9
Gizarte-kohesioa	9
Garapen akademikoa	14
Garapen kulturala	15
Euskararen sustapena	18
Biodibertsitatea	19

03 Kudeaketako beste alor batzuk

Orona elikadura-eredua	20
Ekitaldien kudeaketa	21





Agurra

Bultzada, hurbiltasuna, zentzua duen berrikuntza eta komunitatea dira gure balio nagusiak. Printzipio kooperatiboak dira, gure helburuarekin eta balioekin batera, ingurunearekin dugun harremanaren oinarria.

Orona gara, balio-kate guztian presentzia duen pertsonen mugikortasuneko kidea, zerbitzua eta jasangarritasuna nabarmentzen dituen bezeroen beharrak asetzeko. Gizarte- eta enpresa-proiektua osatzen duten pertsonak dira gure ardatz nagusia, eta gardentasuna eta partaidetza bermatzen dizkiegu. Gizarteko kide den aldetik, gizartera solidaritatea eta lankidetzak ekartzeko konpromisoa du Oronak.

Gure gizarte- eta enpresa-proiektuak kontuan hartzen ditu Nazio Batuen 2030 Agenda eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). Agenda horren helburu nagusiak pobrezia errotik desagerraraztea, planeta babestea eta pertsona guztientzako oparotasuna bermatzea dira. Oronan badakigu gure proiektuaren ekarpena garrantzitsua dela gizartean helburu horiek guztion artean lortzeko.

Orona Fundazioak funtsezko egitekoa du gizarteari zerbitzua eskaintzeari dagokionez, eta gure erakundeko pertsonen ere eskaintzen diegu zerbitzu hori. Fundazioak erakundeen, gizartearen, ekonomiaren eta hezkuntzaren esparruetara iristen diren ekintzak egiten ditu. Gainera, Orona Ideoren ingurunera irekita dagoela, eta, testuinguru horretan, trebakuntza- eta garapen-proiektuak eta kultura- eta gizarte-ekimenak ere babesten ditu.

Hurbilen daukagun ingurunearekin egiten dugun lankidetzaren adibide garbia da Orona Ideo, Orona Fundazioaren babesarekin.

2023an gure inguruneari laguntzen jarraitzeko apustu sendoari eutsi diogu, erakundeen, gizartearen, ekonomiaren eta hezkuntzaren esparruetan hainbat proiekturen bidez.

Memoria honetan, alderdi horiek guztiak azaltzen ditugu, gure ekintzek jasangarritasuna indartuko dutelakoan enpresa-munduan eta gizartean.

Oronarentzat funtsezkoa da etorkizunarekin eta ingurunearekin daukan konpromisoa. Guztion artean, sendotasunez aurrera egiten jarraituko dugu.

Aitor Azkarate Bazterrica

Oronako Zuzendari Nagusia

Fundazioaren helburuak

Fundazioaren estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Orona Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-arlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-ekintzak sustatzeko jarduerak eta ekimenak egitea.

Alde horretatik, fundazioaren helburuen artean sartzen dira: hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzea eta kudeatzea; hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak bideratzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak babestea eta antolatzea.

Halaber, fundazioaren helburua da ekonomia soziala sustatzea eta babestea, kooperatibismoaren ezaugarriak hedatzea, lanbideratzea sustatzea, eta era guztietako kultura-, gizarte-, ongintza- eta laguntza-jarduerak babestea.



Fundazioaren bitartez, Oronak **gizartearekiko konpromisoa** indartu nahi du, bere hezkuntza-, eskualde-, erakunde- eta ikerketa-arloko eta nazioarteko garapenerako oinarriak sustatuz.


Jardun-esparruak eta -eredua

Bere ingurua hainbat ikuspegitatik garatzea da Orona Fundazioaren asmoa: sozioekonomia, kultura, hezkuntza, gizartea eta kirola. Horretarako, eredu proaktibo bat du oinarri, gizarte-eragileekin batera proiektuak lantzean oinarrituta, eta bere azpiegiturak, harremanak, giza kapitala eta, beharrezkoa bada, funts-bilketa jartzen ditu.

Orona Fundazioaren nahia barne-zerbitzua ematea ere badenez, badu beste helburu nagusi bat: Oronako giza kapitalaren garapen integrala. Barruko eta kanpoko helburuen ikuspegi orokorra du gidari fundazioak, eta, hala, funtzionamenduari koherentzia ematen zaio.

Ekarpen-eredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta finantza-baliabideak.

Beste urte batez, fundazioak Oronaren berrikuntza sozialaren alde egin du, eta, hala, kontseilu sozialaren irizpideei jarraituz, Heziketarako eta Kooperatiba Sustatzeko Ekarpenaren bidez urtero egiten diren diru-ekarpenak osatu ditu.

A woman with long brown hair tied in a ponytail, wearing a white textured sweater, blue jeans, and a dark blue backpack, stands with her back to the camera on a balcony. She is looking out over a cityscape through a large glass window. The scene is brightly lit, suggesting daytime.

Inguruko gizarteari garatzen laguntzea da Orona Fundazioaren helburua, gizarteari on egiten diona Oronarentzat berarentzat ere ona izango delakoan.

Proiektuak eta jarduerak

Komunitatearen garapenarekin lotuta, fundazioaren helburua da bere ekintza bere jarduera-eremutik hurbilen dagoen ingurunean zabaltzea, gizarte-eragileen bidez.

GIZARTERANTZ

Ingurua garatzeko Gizarterantz lan-ildoak dago zuzenki errotuta tokiko gizartean, haren garapena hainbat ikuspegitatik sustatzea baitu helburu:

- Prestakuntza, heziketa eta ikerketa.
- Jarduera kultural, sozial eta ongintzazkoak.
- Euskararen sustapena.



2023an babestutako proiektu eta erakunde nagusiak zazpi ardatz hauetan biltzen dira:

Honako GJH hauekin konpromisoa:



MUNDUKIDE

Garapen-proiektuak babesten ditugu, kooperazio-esperientziaren beraren balio solidarioen bidez



BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatea bera funtsezko ondasun naturala da, eta, horregatik, haren garrantzia eta kontserbazioa sustatzen ditugu garapen ekonomikorako eta aurrerapen sozialerako

Sagarreta Natur Taldea



BASERRITIK MAHAIRA

Elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko modua eredu jasangarriago batera aldatzea eta, gainera, tokiko ekonomiaren garapena sustatzea xede duten ekimenak biltzen ditu

Karabeleko



EUSKARAREN SUSTAPENA

Gure identitatearen parte den aldetik, euskara sustatzen duten proiektuak eta jarduerak bultzatzen ditugu

Araba euskaraz
Ibilaldia
Kilometroak
Errigora



GIZARTE-KOHESIOA

Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzearen alde egiten dugu lan; tokiko kolektiboaren partaidetza-sentimendua indartuz eta bere harreman-sareko eragileen arteko lotura sustatuz

Hernani Club Rugby Elkartea
Konporta Kirol Elkartea
Donostiako Zurriola Surf Kluba
Hernaniko Arraun Elkartea
Shelter Surf kluba
Dame TVisión
Donosti Cup



GARAPEN AKADEMIKOA

Irakaskuntza-erakundearen artean hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi dugu, ikasleek gaitasun berriak eskuratu eta garatu ditzaten

PBL day
Doplay



GARAPEN KULTURALA

Gure gizartean kultura-jarduerak bizirik mantendu nahi dugu, etorkizunari egindako ekarpen eta begirada gisa

Landarbaso abesbatza
Bira produkzioak
Tolofolk
Albaola
Erremontea
Gertu kultura



Mundukideren helburua hazkunde jasangarria eta kalitatezko enplegua bultzatzea da, garapen bidean dauden herrialdeetan kooperatibak martxan jarritz.

Oronak Mundukideren lan garrantzitsua babestu du hura sortu zenetik, eta, Orona Fundaziotik, ekarpen ekonomiko jarraituak eta nabarmenak egiten dizkiogu.

2023an Mundukidek bideratutako ekimen nabarmenenak honako hauek dira:

- **Mozambiken**, bederatzi distritutan banatutako 15.000 familia nekazarik milioi eta erdi euro irabaztea lortu dute labore eta teknika berrieekin (hala, familia nekazarien diru-sarrera arruntak % 50 igo dira).
- **Brasilen**, 5.000 bazkide baino gehiago dituzten 50 kooperatibekin kudeaketa-hobekuntzak egin dira eta supermerkatu-sare bat sortzen ari da. Dagoeneko 25 dira bi milioi euroko salmentak sortzen dituzten dendak.
- **Kolonbian**, hainbat hiritako birziklatzaileekin eta nekazari indigenen elkarrekin elkarlanean aritzen dira beren lan-baldintzak eta diru-sarrerak hobetzeko.
- **Ekueadorren**, sozietate kooperatibo bati merkataritza sare bat sortzen lagundu diote eta indigena enpresa bati, berriz, estrategia-plana.
- **Etiopian**, gerra-egoerak lana zailtzen badu ere, ehunka emakumerekin lanean aritu dira baratze-laborantzak eta oilasko haztegiak eraikitzeko eta hobetzeko.





KARABELEKO

Karabeleko etxalde agroekologikoarekin lankidetzan jarraitzen dugu. Nekazaritza ekologikoan aitzindari den etxalde esperimental da, Agifes, Blasenea eta Kimu Bat-en indarren baturari esker sortua, eta Enplegurako Zentro Bereziaren kalifikazioa du.

Karabelekoren helburuak dira baratzegintza ekologikoko ekoizpen- eta kontsumo-kultura sustatzea, eta baita osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea ere. Orona Fundazioak laguntza finantzarioa ematen dio proiektuari.

Bestalde, Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileen artean kontsumo-talde bat dago, eta astero, etxalde horretatik datorren barazki ekologikoen otarra jasotzen dute.





GIZARTE-KOHESIOA



DONOSTI AUTHENTICS CUP

Donosti Authentics Cup adimen urritasuna duten gazteei futbol munduan aktiboki parte hartzeko aukera ematen dien txapelketa da.

Txapelketan zehar, zenbait tailer egiteaz gain, SD Eibar, Real Sociedad, Gladiadores de Mexico, Newcastle United, Olagarroak eta Entente Basque taldeen azken partidak jokatu ziren. Gainera, lagunartekoa burutu zen Mindara elkartearen eta Gladiadoresen bigarren talde baten artean.

Orona Fundazioak Donosti Cup barruko ekimen hau diruz laguntzen du. Horren bidez, kirolean inklusioa eta aniztasuna sustatzen jarraitzeko konpromisoa berresten dugu, mundu berdinzaleagoa eta pertsona guztientzat irekiagoa eraikitzeko inspirazioa emanez.



HERNANI CLUB RUGBY ELKARTEA

Hernani Rugby Elkartea tokiko eragile dinamizatzailea da, eta ehunka pertsona bideratzen ditu kirol horren berezko talde- eta elkartasun-balioetara. Rugbyaren bidez, klubaren helburua pertsonen arteko bizikidetzarako ezinbestekoak diren balioak sustatzea eta hedatzea da.

Orona Fundazioak klubeko errugbi-talde inklusiboari laguntzen dio, klubera hurbiltzen diren pertsona guztientzat espazio eroso bat sortzen lagunduz, denen desberdintasunak onartuz, genero-, adin- nahiz funtzionalitate-arlokoak.



KONPORTA KIROL ELKARTEA

Konporta KE 25 urte baino gehiago dituen kirol kluba da eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat eta pertsonekin egiten du lan. Igeriketan aritzen dira, bai igerilekuan, bai ur irekietan eta itsasoan ere, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzen lagunduz, haien ongizate fisiko, emozional eta soziala bultzatuz eta autoestimua eta trebetasunak handituz.

Orona Fundaziotik Konporta KEren "Un mar de posibilidades" ekimena babesten dugu, mugikortasun urriko pertsonentzat ur irekietan egiten diren ibilaldietan laguntzeko programa bat, kirolak desgaitasuna duten pertsonentzako tresna sozializatzailerik gisa balio duela jakinda.



DONOSTIAKO ZURRIOLA SURF KLUBA

Zurriola Surf Klubak eta Gautenak bultzatutako "Guztion olatuak" ekimenaren helburua da Autismoaren Espektroko Nahasmenduak (AEN) dituzten pertsonen jarduerak estimulatzaileak eskaintzea, beren bizi-kalitatea hobetzeko eta bakoitzak dituen trebetasunak lantzeko.

Desgaitasuna duten pertsonentzat surfa egitea jarduerak motibagarri eta estimulatzaileak dira, eta onurak ekartzen dituzte mugimenduen garapenean eta, oro har, garapen fisikoan.

Orona Fundaziotik proiektu hau aurrera eramaten laguntzen dugu, aniztasuna eta gizarte-kohesioa sustatzeko espazioak sortzearen garrantzian sinetsita.



SHELTER SURF KLUBA

Kind Surf gizarte-ingurumeneko GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) bat da, egoera ahulean dauden gazteei zuzendua, surfaren eta ingurumen-hezkuntzaren bidez lagunduz.

Kind Surf proiektuak 2012. urtean ekin zion bere ibilbideari hainbat herri eta hondartzatan, egokitutako surfeko jardunaldi puntualak antolatuz eta aniztasun funtzionala duten hainbat familiari surfaz goatzeko aukera eskainiz. 2018an, Shelter Surf Klubak proiektu hori barneratu zuen, eta, surf egokituko jardunaldiez gain, surf egokitua egiteko jarraipen entrenamenduak jarri zituen martxan Zarauzko hondartzan.

Orona Fundazioak ekimen hau laguntzen du, izaera integratzailea duelako eta surf-jardueretan parte hartzen duten neska-mutil guztientzat onuragarria delako.



HERNANIKO ARRAUN ELKARTEA

Hernaniko Arraun Elkarteak tosta arrauna praktikatzen du, eta batel, trainerilla eta traineruan lehiatzen da. Gaur egun, kluba, haur, promes (kadete), gazte eta senior kategorietako neska-mutilek osatzen dute, arraunarekin ikasi eta goatzeko helburuarekin.

2015ean "Maialen" trainerua sortu zuen emakumezkoen kategorian lehiatzeko. Era berean, klubetik arraun egokitua sustatzen da eta hainbat txapelketetan lorpen nabarmenak erdietsi dira.

Orona Fundazioak erakunde honen lana babestu nahi izan du; izan ere, esfortzu handia egiten du Hernani inguruan kirol hau kontserbatzeko eta gizarteratzeko, eta emakumezkoen traineruen eta egokitutako arraunaren aldeko apustua egiten du.



DAME TVISIÓN

Irailaren 23an, "Errebeldeak Fest Kirol Rock Inklusiboa" jaialdiaren bigarren edizioa izan zen Hernanin, Euskadiko lehen kirol eta rock jaialdi inklusiboa.

Ekitaldi hau Ibón Casasek duela hamabi urte ipinitako hazitik eratorria da. Casasek desgaitasuna munduan milioika pertsonari eragiten dien benetako arazoa dela erakutsi nahi zuen, ikusgarritasuna emateko eta inklusioan hobetzen jarrai daitekeela erakusteko.

Egunean zehar Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak zuzendutako hainbat kirol jarduera egokitu eta/edo inklusibo burutu ziren, beste kirol federazio eta kirol talde batzuen laguntzarekin.

Egun sutsu horren ostean, DameTVisionek antolatutako rock kontzertu inklusiboa egin zen: Errebeldeak Blind Rock Festival 2023.

Orona Fundazioan uste sendoa dugu garrantzitsua dela halako ekimenak bultzatzea gizarte-kohesioa handitzeko eta gizarte pluralagoa eraikitzeko.





GARAPEN AKADEMIKOAK



PBL DAY

Martxoaren 14an 2023ko PBL Day-a ospatu zen Orona Ideon, 700 ikasle baino gehiago bertaratu ziren.

Hautatutako 26 proiektuen artean, unibertsitateko irakasleek eta enpresetako ordezkariak osatutako epaimahaiak erabakita (Orona, Ikerlan, Jema Energy | Power Conversion Systems eta Berrikuntzaren Euskal Agentzia | Innobasque), Orona Fundazioak lehen saria "Smart Recycling" proiektuari eman zion, zeinak helburu duen ekitaldi jendetsuen hondakinak banatzea.

Bigarren saria "Eolicare Sorgailua" proiektuarentzat izan zen, energia zinetikoa energia elektriko bihurtzeko etxeko aerosorgailu bat sortzea du oinarri proiektu horrek.



DOPLAY

Aurten, beste behin, Doplay-rekin kolaboratu dugu, izan ere, Orona Ideon udako tailer teknologikoak egin ditugu, gazteek zientzia eta teknologia modu praktikoan ikas dezaten, beren sormena garatzearekin eta modu kolaboratiboan lan egitearekin batera.

Tailerrak uztailean egin dira, 3 adin-taldetan banatuta. Robotikarekin, programazioarekin, bideo-jokoendiseinuarekin, droneekin, elektronikarekin, diseinuarekin eta animazioarekin eta bideo-edizioarekin lotutako hainbat gai landu dira.



TOLOFOLK

Tolofolk jaialdia JeaJeaka Kultur Elkarateak antolatu zuen Tolosako Udalaren babesarekin eta apirilaren 13tik 16ra ospatu zen.

Hirugarren edizio honetan, jatorri desberdinetako artistak bildu dira udalerrian: Texas, Katalunia, Galizia, Euskal Herria, etab.

Orona Fundazioak, kultura garatzeko konpromisoarekin, jaialdi honen alde egin du, kultura herrikoia sustatu eta Tolosako kultur bizitza dinamizatzeko helburuekin.



ALBAOLA

Albaola Itsas Kultur Faktoriaren jarduera nagusia ontzi historikoak eraikitzea da, aurreko mendeetan euskal gizartearentzat artisau-itsas teknologia menderatzearen eta ezagutzearen garrantzia berreskuratzeko eta balioesteko.

Orona Fundazioak Albaolari laguntzen dio San Juan itsasontziaren erreplika eraikitzeko eta pandemiaren ondoren museoaren jarduera sustatzeko.



BIRA PRODUKZIOAK

5Bide dokumentalean Euskal Herriko parke-naturaletara egindako bost ibilaldi biltzen dira: Aiako Harriak, Aizkorri-Aratz mendilerroa, Jaizkibel mendilerroa eta Iratiko oihana.

Irteera bakoitzak profil desberdineko bi pertsonaren arteko elkarrizketa lasaia bideratuko du. Protagonistak lehen aldiz paisaia ezezagun batean murgilduko dira, hainbat gairi buruz hausnartzeko.

Orona Fundazioak dokumental honek jorratzen dituen balioak partekatzen ditu: “konpromisoa tokikoa den guztiarekin, kulturarekin eta kirolarekin, natura-ondasunaren kontserbazioarekin, mendizaletasunaren ondarearen transmisioarekin, euskararekin, berdintasunarekin eta umorearekin”. Hori dela eta, proiektu horren ekoizpena babestu du, dokumentala 2023ko abenduan Mendi Film Festivalean aurkeztu zedin.



LANDARBASO ABESBATZA

Landarbaso abesbatza musika-erreferentetzat hartzen da, eta bere kideen gaztetasuna, originaltasuna eta proiektuen berrikuntza eta kalitatea nabarmentzen dira. Euskal kulturarekin duen konpromiso ukaezina ere azpimarratu behar da, galdutako lanak berreskuratu eta moldaketa eta grabazio berriak eskaintzen baititu.

Euskal musika tradizionala eta kantua ondare ez-material gisa sustatzeko Landarbaso abesbatzaren sentsibilizazio-proiektua bultzatu du Orona Fundazioak.

Horretarako, bisitak eta saio pedagogikoak egin dira hainbat ikastetxetan: Bizarain, Hautzaro eta Orereta Ikastola, Koldo Mitxelena Herri Eskola eta Erretereria Musikal.



GARAPEN KULTURALA



ERREMONTA

Nafarroako eta Gipuzkoako modalitate hori bi frontoitan bakarrik jokatzen da: Galarreta frontoian eta Uharteko Euskal Jai Berri frontoian. Erremontea euskal pilotaren modalitate ikusgarrienetako bat da, zestaz hornitua, eta teknika eta pilotaren abiadura handia nabarmentzen dira.

53. Binakako Erremonte Txapelketaren aurkezpena Hernaniko Orona Fundazioaren instalazioetan egin zen. Bost bikotek binakako txapela jokatuko dute, eta, gainera, Erremonteko Bigarren Mailako Txapelketa jokatu da bost bikoterekin.

Orona Fundazioak erremontearen alde egiten jarraitzen du, gure inguruneko ondare kulturala baita.




GERTU KULTURA

“Gertu Kultura / Acerca Cultura” programa babesten dugu Gipuzkoan, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonentzat kultura-ondasun eta -zerbitzuak eskuragarriagoak bihurtzeko asmoz.

Kulturaz gozatzea eskubidea da, duin bihurtzen gaitu kulturak eta gizarte-inklusioa sustatzen du. Ekimen honen bidez, antzerki-, auditorium-, jaialdi-, museo- eta gune enblematiko-sare batek, kultura-programazioa eskaintzen die gizarte-erakundeen eskutik kalteberatasun-egoeran dauden pertsoneri.



EUSKARAREN SUSTAPENA



EUSKARAREN SUSTAPENA

Euskara sustatzeko konpromisoa dugun aldetik, ikastolen aldeko jaialdiak babestu ditugu:

- Ibilaldia Ondarroan
- Araba Euskaraz Olarizun
- Kilometroak Orereta-Errenterian

Euskararen eguna dela eta, hainbat hedabidetako argitalpenak babestu ditugu, hala nola Elhuyar zientzia eta teknologia aldizkarikoak, Alea aldizkarikoak eta Bertsolari aldizkarikoak.



ERRIGORA

Agerraldiak, Errigora elkartetik sustatutako proiektuak, hiru helburu ditu: euskararen ezagutza zabaltzea, erabilera eta euskaraz bizitzeko aukera handitzea, eta euskararen aldeko jarrerak indartzea eta sustatzea. Hori dela eta, hainbat proiektu jarri dira martxan: aisialdikoak, lanekoak, errotulaziokoak euskaraz, hizkuntza-praktiketako taldeak, etab.

Euskara sustatzeko konpromisotik, Orona Fundazioak "jolasteken" ekimena babestu du, euskarazko aisialdi-eskaintza bat sortzera bideratua, Nafarroako erdialde eta hegoaldeko neska-mutilek, ikastolatik irteten direnean, euskaraz elkarreaginean jarraitu dezaten.



BIODIBERTSITATEA

SAGARRETA NATUR TALDEA

Biodibertsitatea zaintzen laguntzen dugu Sagarreta Natur Taldearen eskutik.



Orona Fundaziotik elkarte horrek Hernanin eta Urumea bailaran ondare naturala eta biodibertsitatea mantentzearen alde egindako lana babesten dugu.

Zehazki, "Mintegi eta bertako basoen berreskurapen" proiektuan lagundu diogu Sagarretari. Hernaniko Udalak lagatako 16.612 m²ko lur batean, zuhaitzak landatuko dira eta mintegi bat sortuko da tokiko zuhaitzetatik datozen haziak hazteko, ondoren beste lur batzuetan landatzeko. Ahalegin berezia egingo da Quercus pirenaica/Q.petraea/Prunus lusitánica espezieak berreskuratzeko, bertako basoetan beren lekua berriro izan dezaten.

Proiektua, gainera, Hernaniko bizilagunekin eta ikastetxeekin lankidetzan egingo da, ekimenaren baitan dibulgazioa, sentsibilizazioa, ikerketa eta pedagogia sustatzeko.



Kudeaketako beste alor batzuk

ORONAREN ELIKADURA-EREDUA


Oronako langileei eta Orona Ideoko erabiltzaileei (Orona, Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan) garaian garaiko elikadura, kalitate onenekoa eta bertan ekoitzia eskaintzea da elikadura-eredu paregabe eta propio horren oinarria. Elikagaiak metodo tradizionalak erabiliz prozesatzen dira, ingurumena errespetatzea lehenetsiz, eta nekazari, abeltzain eta arrantzaleek bidezko prezioa jasotzen dute beren uztaren edo harrapaketa truke.

Gure Elikagai, S.L.-ren bidez, Oronak 0 kilometroko produktuetan oinarritutako elikadura-eredu osasungarri bat eskaintzen die Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei nahiz Diametro 200 jatetxera etortzen diren kanpoko bezeroei. Karabeleko etxalde agroekologikoa da Diametro 200 jatetxearen barazki freskoen hornitzaile nagusia.

Oronan lan egiten duten pertsonen artean kultura osasungarria sustatzeko eta elikagai gutxiago alferrik galtzeko beste bide bat da eguneroko menuko otordua etxera eramatea.

2023an zehar Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei 99.177 otordu eman zaizkie Hernaniko instalazioetan.

Otordu horiek guztiak emateko 2023an erositako lehengaiei dagokienez, %62 hurbileko produktuak dira (200 km-ko diametro barruan du jatorria) eta/edo produktu ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak.



Kudeaketako beste alor batzuk


EKITALDIEN KUDEAKETA

Orona Ideo topagune bat da ingurune hurbileneko eragileentzat. Horrez gain, hirugarren batzuen ekitaldiak ere egiten dira han.

2023an 104 ekitaldi egin dira, eta horietatik 53 hirugarren erakundeen topaketak izan dira. Guztira, ekitaldietan, 5.015 pertsona bildu dira.

104
bilera edo ekitaldi

5.015
bisitari



Orona



Fundazioa
Foundation

Jauregi bidea z.g.
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Telf. +34 943335588

info@oronafundazioa.org
www.oronafundazioa.org

